



SENIDEENGAN, JAUNARENTZAT

Bokazioen alde otoitz egiteko Mundu Jardunaldia 2025

2025eko maiatzaren 11, igandea

OTOITZA

Eskerrak Zuri, gure Jainko eta Aita,
«deituen batzar» egin gaituzulako,
Zure herri, bataiatuen herri.

«Bai» esaten dizugu,
Jesu Kristo zure Semearen Ebanjelioarekin
leial izan nahi dugulako,
baita gure bokazioarekiko leial ere.

Emaguzu «bizitza bokazio moduan»
iragartzeko dohaina eta apaizgoan,
biziera sagaratuan, ezkon-bizitzan,
misioan eta laiko apostolutzan Zuri
gure bizitza eskaintzeko dohaina.

Bete gure bihotzak zeure Espirituaz,
jakinduria eta bereizmen Espirituaz.
Gure «dei pastoraltza»,
bokazio eta karismez hain aberatsa,
Zuk gure artean duzun presentziaren
testigantza izan dadin.

Maria gure Ama Sortzez Garbiarekin,
Bokazioaren Amarekin eta Jaunaren
adiskide Santiago apostoluarekin
eta hainbat martiri eta santuekin esaten dizugu:
«Hemen gaude, zure nahia egiteko».

Amen.



CONFERENCIA
EPISCOPAL
ESPAÑOLA



SERVICIO DE
PASTORAL VOCACIONAL



Añastro, 1 · 28033 Madrid
pastoralvocacional@conferenciaepiscopal.es